

JUUL 2025

LIBURU eta ILUSTRATZAILE

BOZKATUENAK



ikastolenelkartea




Xirimiri

Egilea: Fernando Pérez

Argitaletxea: Pamiela

Zorigaitz sinple batetik sortzen da elkarrengandik ikasteko eta elkar aberasteko aukera euriak bustitzen duen hegazti familia baten etxean. Umeek bata bestegandik ikasiko dute, ama jakintsu bat izango dute, gainera, laguntzeko. Sinpletasunetik abiatuta, «Xirimiri» album ilustratuak istorio zirkular bat kontatuko du, gizarte indibidualista honen nolabaiteko metafora bat sortuz, elkarbizitzatik eta elkartasunetik komunikazioa eta kolektibotasuna hobetzeko ideiarekin.



Kulero zulatuen mamua

Egilea: Jose Carlos Andrés

Argitaletxea: Nubeocho

— KULERO ROOOTEN MAMUA NAIZ! Villa Pesadillan, bizilagunek ezin dute lo egin, ezta lasai bizi ere, kulero hautsien mamuak beldurtu egiten baititu ordu guztietan. Auzi honekin amaitzeko, Mario Bolirrojo, Vera la Bombera... joango dira gaztelura, baina denak ihesi doaz. Nola konponduko dute kulero hautsien mamuaren arazoa?




Arrats zapo bat

Egilea: Maite Mutuberria

Argitaletxea: Pamiela

«Kontzzzo, bai azzzpertuta dagoela zzzapoa», pentsatu zuen eltxoak. «Zzzer egin nezzzake hura dizzztraitzzzzeko...». Eltxoaren ostean, barraskiloa, inurria, armiarma, burruntzia eta ehunzangoa iritsi ziren. Baita matxinsaltoa ere, zeina ez zegoen prest segizio goxo haren parte izateko. «Arrats zapo bat» gero eta narrazio-erritmo handiagoz, irakurlea ezusteko amaiera arte gidatzen duen album ilustratu dibertigarri bat da.

Protagonistak modu berezian, joko fonikoak eta onomatopeiak erabiliz mintzo dira, narrazioa lagunduz eta euren buruari nortasuna emanaz.



B KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 1. eta 2. maila

Lehen Maila 1. eta 2. urtea

Pantxo zezena

Egilea: Pello Añorga

Argitaletxea: Denonartean

Ilustrazioak: Jokin Mitxelena

Eta a zer nolako festak! Pantxok orro beldurgarriak atera eta istantean harrapatzen zuen jendea, eta zilipurdika botatzen adar handiekin, trapu zahar baten modura.



B KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 1. eta 2. maila

Lehen Maila 1. eta 2. urtea

Itsas haizea dabil

Egilea: Junkal Lertxundi

Argitaletxea: IkasElkar

Ilustrazioak: Asier Iturralde “Gaston”

Arraitarrak senide askoko familia dira: abeslariak, akrobatak, gozogileak, jostunak denetik dago etxean.

A zer zalaparta familia horretakoa!

Telmok, etxeko txikiak, serio begiratzen die denei eta itsas haizea dabilenean bakarrik alaitzen zaio begitartea. Zergatik ote?



B KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 1. eta 2. maila

Lehen Maila 1. eta 2. urtea

Galdu dena, azaldu dadila!

Egilea: Garazi Kamio

Argitaletxea: Ikaselkar

Ilustratzailea: Julen Ribas

Hirian desagertu dira Olaiaren ama, Ekhiren aita, Lukaren amonak eta Miaren osaba. A zer despistatu-kuadrilla! Eta orain zer? Nondik hasi bila?



C KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 3. eta 4. maila

Lehen Maila 3. eta 4. urtea

Onin eta misio espaziala

Egilea: Ibon Martin

Argitaletxea: Travel Bug

Irudigilea: Emmanuel Montiel

Bururatzen zaizu espaziora bidaiatzea eta ilargia bisitatzea baino gauza zirraragarriagorik? Batzuetan, planak ez dira espero bezala irteten, eta Bardeetako basamortuan hasitako bizikleta-ibilaldi bat gure bizitzako bidaiarik bitxiena bihurtu daiteke. Suzkotximaren zitalkeriak eta mozolo dibertigarri baten ustekabeko ezagutzak betiko aldatuko digu Lurra ikusteko modua. Hobe izango dugu gure planeta salbatzeko gure esku dagoena egitea... edo laster beranduegi izango da.



C KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 3. eta 4. maila

Lehen Maila 3. eta 4. urtea

Mihi-puntaren puntan

Egilea: Xabier Olaso

Argitaletxea: Elkar

Ilustratzaileak: Higinia Garay

Egutegi baten egituran 365 igarkizun jaso ditu Xabier Olasok liburu honetan, egun bakoitzeko bat, hilabete eta urtaro ezberdinetan banatuta, bizitzak berak egunero dakarrelako berarekin asmatu beharreko igarkizun bat. Jolastu eta ikasi.



C KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 3. eta 4. maila

Lehen Maila 3. eta 4. urtea

Ezin ezetz esan

Egileak: Mariasun Landa

Argitaletxea: Erein

Ilustratzaileak: Andrea Prosper

Herri txiki eta berezi honetan, inoiz ezagutu ez den fenomeno bat gertatu zen: EZ hitza erabat desagertu zen jendearen aho eta bihotzetatik... Ez zuten EZ bezalako hitzik ezagutzen, ezta horren beharrik sentitu ere.



D KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 5. eta 6. maila

Lehen Maila 5. urtea, Kolegio 6.a

Sira 1 – Labirinto magikoa

Egilea: Ibon Martin

Argitaletxea: Travel bug

Ilustratzaileak: Emmanuel Montiel

Kaixo! Sira naiz, eta nire lagunak Irati, Martin, Enzo eta Noa dira.

Ikaragarri gustatzen zaigu abentura zirraragarriak bizitzea eta elkarrekin ondo pasatzea.

Sekretu bat kontatzea nahi? Superbotereak ditugu, nahiz eta beti ez duten behar bezala funtzionatzen...

Gure lehen bidaiak ezustekoz beteriko labirinto batera eramango gaitu. Goxokizko mundu harrigarri bat deskubrituko dugu, eta olagarro ikaragarri bati egin beharko diogu aurre, baita liztor erraldoiei, harea mugikorrei eta landare haragijaleei ere...

Lortuko ahal dugu bizirik itzultzea!



D KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 5. eta 6. maila

Lehen Maila 5. urtea, Kolegio 6.a

Azken denbora

Egilea: Nerea Loiola


Argitaletxea: Erein

Liburu hau desberdina da. Istorio honetan gertatuko dena zure eskuetan dago. Zu zara protagonista!

Arriskuak, dilemak, eta abenturak aurkituko dituzu. Erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi. Zure gaitasunak eta adimena erabili beharko dituzu. Erabaki txar batek hondamendia eragin lezake... eta heriotza ere bai!

Baina ez etsi. Edozein unetan egin dezakezu atzera eta beste aukera bat hautatu, zure istorioaren ibilbidea aldatu dezakezu. Murgildu zaitez Azken denbora abentura berrian. Agian lagun berriak egingo dituzu, garai eta izaki berriak ezagutuko dituzu, agian zure bizitzako abenturarik zoragarriena izango da edo agian ez, agian ezingo duzu etxera itzuli, agian ezingo duzu gertatu zaizuna inoiz kontatu, agian dena amaituko da betiko.

Ausartuko zara? Gertatzen dena gertatzen dela ere, ZORTE ON!



D KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 5. eta 6. maila


Lehen Maila 5. urtea, Kolegio 6.a

Amanda Black, Galdutako amuletoa

Egilea: Bárbara Montes eta Juan Gómez-Jurado

Argitaletxea: Denonartean

Lord Thomasek, hiriko erakunde oso batek, familia kutun bat itzultzeko eskatu die Black-ei, duela urte batzuk guztion onerako lapurtu zuten besokoa. Baina amuletoa ez dago lapurren familiaren esku. Izeba Paulak Amandari esan dionean bere birramonak duela urte batzuk besokoa oparitu zuela, plan bat prestatu dute altxorra berreskuratzeko. Amanda eta Eric besokoaren atzetik joango dira etxe sorgindu bateraino; Paula, berriz, bidaia arriskutsu batean sartuko da Thomasekin, egia aurki ez dezan.



E KATEGORIA – Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza


Kolegio 5., 4. eta 3.a, Lizeoko 2.a

Miñan

Egilea: Amets Arzallus eta Ibrahima Balde
Argitaletxea: Susa

Gineako hiriburutik Nzerekorera mila eta hirurehun bat kilometro daude. Ibrahima han ibili zen hiru edo lau urtez, kamioi batean, gidari batek apendiz onartu zuelako. Aste batean Konakrytik Nzerekorera joaten ziren eta hurrengo astean Konakryra itzuli. Egun batean amak deitu zuen arte: anaia txikia falta zen etxean. Eta haren bila abiatu zen.

Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileekin topo egin; egarria, gosea, mina ezagutu. Afrikatik Europarako bidea. Mediterraneo zeharkatzen dutenak deshumanizatzea ezinbestekoa da haien heriotzen, kanporatzeen, ilegalizatutako bizitzen gaineko ezaxola zabaltzeko. Baina bizitza horietako bakoitza bakarra da eta, beraz, unibertsala. Eta kontatzeak hori azpimarratzen du. Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da nobela hau, hark ahoz eta Amets Arzallusek letraz idatzia. Berezia duelako zauria, eta berezia kontatzeko manera. Hitz egitean han balego bezala.



E KATEGORIA – Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Kolegio 5., 4. eta 3.a, Lizeoko 2.a

Hormak


Egilea: Oihane Iguaran

Argitaletxea: Elkar

Institutuko sarrerako horman LEA PUTA idatzita aurkitu dute ikasleek, eta ikusi orduko, azpijaneari hasi dira guztiak Leak halako mezua jasotzeko zein arrazoi ote dauden jakiteko.

Pintadak, halere, ikaskideen artean dauden beste hamaika horma jarriko ditu agerian.

Denok ditugu iraintzen gaituzten hormak, esamoldeak eta jarrerak. Eskolako hormak batzuentzat ate zabalak dira, beste batzuentzat egunero gainditu beharreko hesiak



E KATEGORIA – Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Kolegio 5., 4. eta 3.a, Lizeoko 2.a

Festa

Egilea: Jasone Osoro

Argitaletxea: Elkar

Sofia eta Andrea bizitza berri baten atariko ilusioarekin joan ziren inguruetakoko udako festarik sonatuenera.

Gogoa eta gorputza aske utzita, Sofiak eta Ivanek ezin izan zioten ezetzik esan elkarrenganako erakarmenari. Sexua izan zuten.

Badago hamasei urterekin haurdun geratzen den neskarik. Gazteei zirrara eragingo dien istorio honi ez zaio egiantzik falta.



Emmanuel Montiel



I KATEGORIA – Ilustratzaileak

Jokin Mitxelena



I KATEGORIA – Ilustratzaileak

Eider Eibar



Joseba Larratxe “Josevisky”



I KATEGORIA – Ilustratzaileak

Julen Ribas

